



AGINDUA, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez aurretiazko onespena ematen zaio Euskadiko mugikortasun jasangarriaren lege-aurreproiektuari.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren Aginduaren bidez, Euskadiko mugikortasun jasangarriaren lege-aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera eman zitzaion. Araugintza-ekimen hau Administrazio honen beste Sailei eta Jaurlaritzako oporadore juridikoei iragarri zitzaion, aipatutako Agindua Legesarea Lankidetzaren Juridikorako sareko gunean sartuta.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1. artikulua arabera, xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko die haiei, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Azaldutako guztiagatik, eta Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak egindako lege-aurreproiektuaren testua ikusita, honako hau,

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Euskadiko mugikortasun jasangarriaren lege-aurreproiektuaren testuari aurretiazko onespena ematea.

BIGARRENA.- Aurretiazko onspen Agindu hau argitaratzea, araugintza-ekimenaren testuarekin batera, Legesarea Lankidetzaren Juridikorako sareko gunean.

TERCERO.- Egin asmo den araua lantzeko prozedurari jarraipena emateko agintzea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren hasiera emateko Aginduak eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezarritako izapideekin bat etorritik.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburua

MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI
Elektronikoki sinatuta